



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 16a

8. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako 2012ko Kontu Orokorrei buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bidezkoak diren prozedurak ezar ditzan ikastetxe publikoetan hizkuntza eredu desberdinak elkarrekin bizi daitezen, eta hezkuntza-eskaintza publikoa berrantola dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Familiaren Nazioarteko Urtearen Hogeigarren Urteurrenaren kariatara, susta ditzan familiei babesa emateko ekintzak eta politikak, urteurren hori ospatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Laguntzeko Plan Integral berri bat taxutu dezan, 2010etik 2013ra bitarteko Planak iraun duen bitartean detektatutako beharizan berrien eta balorazioaren arabera. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñeko San José Zentroko igerileku terapeutikoko obrei berehala ekin diezaien eta obra horiek egiten diren bitartean ordezko toki bat presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, herri ekimeneko euskaltegien lana aintzatesten da. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako testu arau-emaileak:**

- 1/2013 Foru Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa. Horren bidez, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2014. urtera luzatzen da eta beren montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dira. Osoko Bilkurak baliozkotua (8. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995  
Foru Legea aldatzen duena.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urtarrilaren 9an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikulua eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 153. artikulua ezarritakoarekin bat, aipatutako Foru Legea gehiago osoz onetsia izan da, proiektua bere osotasunean bozkatua izan ondoren.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Legea,  
Nafarroako Toki Ogasunei buruzko  
martxoaren 10eko 2/1995  
Foru Legea aldatzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Foru lege honen xedea da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea.

Baliabiderik ez duten hipoteka-zordunak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuak zenbait neurri fiskal ezarri zituen, etxebizitza erosteko hipoteka mailegu edo kredituek eragindako betebeharrak bete ezinik, familia askotan gertatutako egoera ekonomiko larria samurtzeko. Neurri fiskal horiek Foru Komunitateko zerga arloko araudira egokitu ziren, Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzko maiatzaren 4ko 8/2012 Foru Legearen bidez eta Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua aldatzeko maiatzaren 4ko 9/2012 Foru Legearen bidez.

Berehala ikusi zen, ordea, aipatu neurri fiskal horiek ez zirela oso eraginkorrak, gehienbat haien aplikazio esparrua, aipatutako errege lege-dekretuarena alegia, txikiegia zelako bi aldetatik ikusirik. Batetik, zordunak kontuan hartzen zituen familia unitateko kide guztiek errentarik ez zutenean soilik. Bestetik, ez zen ohiko etxebizitzaren hipoteka-exekuzio guztietan aplikatzen, baizik eta soilik etxebizitza hori ordainean ematen zen kasuetarako.

Errege lege-dekretu horren ondotik aldaketa garrantzitsuak gertatu dira arauetan. Batetik, azaroaren 15eko 27/2012 Errege Lege-dekretuak, ahultasun bereziko kasuetan dauden zordun batzuentzat, bi urterako eten zituen ohiko etxebizitzaren hipoteka-exekuzioak, prozesu judizial edo estrajudizial guztietakoak, epe horretan ez zituzaten beren ohiko etxebizitzetatik bota zordun horiek. Bestetik, maiatzaren 14ko 1/2013 Legeak nabarmen handitu zuen 6/2012 Errege Lege-dekretuaren aplikazio esparrua, eta halatan, familia unitatearen diru-sarreretarako muga Eragin Anitzeko Errenten Adierazle Publikoaren hirukoitza da orain (edo lauukoitza, familia unitateko kideren batek desgaitasuna duenean).

Aurrekoa ukatu gabe, 6/2012 Errege Lege-dekretuaren aplikazio esparrua nabarmen zabaltu bada ere, oraindik behar bestekoa ez dela iritzita, hipoteka-zordunen babesa areagotzea da foru lege proiektu honen asmoa. Hala, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari dagokionez, zerga horren kargaren zenbatekoa jasanarazteko debekuaren norainokoa, 2/1995 Foru Legearen 174.2 artikuluan ezarritakoa, handitu egiten da: zergadunaren ordezeko gisa ezin izan den zenbatekoa jasanarazi ondasun higiezin eskuratzen duten finantza-entitateek, ohiko etxebizitzaren eskualdaketa entitate horietako batek eskatutako epaiketa bidezko prozedura batean egindakoa bada eta etxebizitza hori denean subjektu pasiboaren titularitasuneko etxebizitza bakarra. Hipoteka Legearen 129. artikuluan aurreikusten den kasuan ere, hau

da, ohiko etxebizitzaren notario bidezko salmenta estrajudiziala egiten denean, eskuratzailerak ezin izanen du kargaren zenbatekoa jasanarazi.

Horri jarraituz, kasu horietan etxebizitzaren eskualdatzailea den hipoteka-zordunak ez du bere gain hartuko hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren karga. Zerga horren ondorioetarako babestutako hipoteka-zordunen multzoa zein den zedarrizteko, aurrerantzean ez dira kontuan hartuko familia unitatearen diru-sarrerak, eta ez da beharrezkoa izanen etxebizitza ordainean ematea. Aski izanen da hipoteka-zordun baten ohiko etxebizitzaren eskualdaketa finantza-entitate batek abiatutako prozedura judicial batean gertatzea, betiere etxebizitza hori subjektu pasiboak bere titulartasuneko bakarra badu, edo ohiko etxebizitzaren notario bidezko salmenta estrajudiziala gertatzea, Hipoteka Legearen 129. artikuluan aurreikusitako kasua alegia.

174.2 artikulua 2012ko martxoaren 11tik aurrera izanen ditu ondorioak, hau da, honen bidez aldatzen den aginduak ondorioak izan zituen egunetik aurrera.

Beste alde batetik, Ekintzaileei laguntzeko eta hazkundera eta enplegu-sorkuntza bizkortzeko neurriei buruzko uztailaren 26ko 11/2013 Legearen 34. artikuluan ezarritakoaren ondorioz, ADIF enpresa-entitate publikoari egindako trenbide-azpiegituren eta geltokien eskualdaketak toki entitateei dagozkien zerga orotatik salbuetsirik egonen dira. Kasu horietan ez da aplikatzekoa izanen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 57.2 artikuluan aurreikusitakoa, eta, beraz, salbuespen horrek ez du ordainik ekarriko.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 artikuluan, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 152. eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, foru lege hau onesteko gehiengo osoa beharko da.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen honako agindu hauek testu hau izanen dute aurrerantzean:

Bat. 174.2. artikulua. 2012ko martxoaren 11tik aurrera gertatzen diren zergapeko egintzetarako ondorioekin.

“2. Hipoteka-zordunen ohiko etxebizitzaren eskualdaketatik, finantza-entitate batek abiatutako prozedura judicial batean egindakoak badira eta

etxebizitza hori subjektu pasiboak bere titulartasuneko bakarra badu, ondasun higiezina eskuratzeko duen finantza-entitateak, zergadunaren ordezkari gisa, ezin izanen dio kargaren zenbatekoa jasanarazi zergadunari.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa halaber aplikatuko zaio eskuratzailerari ohiko etxebizitza notario bidez estrajudizialki saltzen denean, Hipoteka Legearen 129. artikuluan aurreikusten den moduan, bai eta ordainean ematen denean aipaturiko etxebizitza, hipoteka-zordunak finantza-entitate batekin iritsitako akordio baten ondorioz eta hipoteka-exekuzioaren ordezkari neurri gisa, eta, betiere, etxebizitza hori subjektu pasiboak bere titulartasuneko bakarra badu.”

Bi. Hamabigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hamabigarren xedapen gehigarria. Estatuko trenbide-sarea administratzeko ardura duen ADIF enpresa-entitate publikoari eskualdatzea sare horren titulartasuna.

Ekintzaileei laguntzeko eta hazkundera eta enplegu-sorkuntza bizkortzeko neurriei buruzko uztailaren 26ko 11/2013 Legearen 34. artikuluan ezarritakoaren ondorioz, ADIF enpresa-entitate publikoari egindako trenbide-azpiegituren eta geltokien eskualdaketak toki entitateek ordainarazi beharreko tributu orotatik salbuetsirik egonen dira, eta ez da aplikatzekoa izanen foru lege honen 57.2 artikuluan aurreikusitakoa.”

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, artikulu bakarreko Bat atalean aurreikusitako ondorioak ukatu gabe.

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako 2012ko Kontu Orokorrei buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Legebiltzarrak, 2014ko urtarrilaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Nafarroako 2012ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.

Agintzen da erabaki hori argitara dadin, Lege-

biltzarreko Erregelamenduaren 114.1 artikulua xedatutakoa betez.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bidezkoak diren prozedurak ezar ditzan ikastetxe publikoetan hizkuntza eredu desberdinak elkarrekin bizi daitezen, eta hezkuntza-eskaintza publiko berrantola dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko urtarrilaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da bidezkoak diren prozedurak ezar ditzan ikastetxe publikoetan hizkuntza eredu desberdinak elkarrekin bizi daitezen, eta hezkuntza-eskaintza publiko berrantola dezan". Horren jatorria da Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako mozio bat, 2013ko abenduaren 5eko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bidezkoak diren prozedurak ezar ditzan ikastetxe publikoetan hizkuntza eredu desberdinak elkarrekin bizi daitezen.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikastetxe publikoei neurri

eta jarraibideak eman diezazkien, ikastetxe berean edo instalazio bereko ikastetxe ezberdinetan hizkuntza-eredu ezberdinetan eskolatuta dauden ikasleek hezkuntza- edo/eta josteta-esperientziak parteka ditzaten eskolako eguneroko bizitzan, halako moduan non ikastetxe horietako hezkuntza-proiektuek ekintza eta jarduera zehatzak jasoko baitituzte xede horrekin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurriak eta jarraibideak ezar ditzan, ingurune fisiko berean egonda –auzoa, herria, eskola-kontzentrazioa– hizkuntza-eredu ezberdinak dituzten ikastetxe publikoetako ikasleek hezkuntza- edo/eta josteta-esperientziak parteka ditzaten, ikastetxe horietan jarduera, denbora edo espazio komunak sustatuz xede horrekin".

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Familiaren Nazioarteko Urtearen Hogeigarren Urteurrenaren kariatara, susta ditzan familiei babesa emateko ekintzak eta politikak, urteurren hori ospatzeko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko urtarrilaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Familiaren Nazioarteko Urtearen Hogeigarren Urteurrenaren kariatara, susta ditzan familiei babesa emateko ekintzak eta politikak, urteurren hori ospatzeko". Horren jatorria da Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako mozio bat, 2013ko abenduaren 13ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Familiaren Nazioarteko Urtearen Hogeigarren Urteurrenaren kariatara, susta ditzan familiei babesa emateko ekintzak eta politikak, urteurren hori ospatzeko.

2. Familiari babesa emateko plan integral bat taxutu dezan, gure gizartean dauden familia-mota ezberdinak jasoko dituen."

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Laguntzeko Plan Integral berri bat taxutu dezan, 2010etik 2013ra bitarteko Planak iraun duen bitartean detektatutako beharrian berrien eta balorazioaren arabera.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko urtarrilaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Laguntzeko Plan Integral berri bat taxutu dezan, 2010etik 2013ra bitarteko Planak iraun duen bitartean detektatutako beharrian berrien eta balorazioaren arabera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Laguntzeko Plan Integral berri bat taxutu dezan, 2010etik 2013ra bitarteko Planak iraun duen bitartean

detektatutako beharrian berrien eta balorazioaren arabera.

2. Aurrerabidea egin dezan Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legearen garapen osoan, aukera-berdintasuna ziurtatzeko.

3. Administrazio Publikoak egindako kontratazioen % 6 izan daitezela enpleguko zentro berezietan eta gizarteratze eta laneratze zentrotan egindakoak, Kontratu Publikoari buruzko Legearekin bat.

4. Aurrekontu-zuzkidurak mantentzen dituzten Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Laguntzeko Plana betetzen dela ziurtatzeko, eta urte anitzeko finantzaketa-planak taxutu ditzan, epe ertaineko eta luzeko plangintza erraztuko dutenak."

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñeko San José Zentroko igerileku terapeutikoko obrei berehala ekin diezaien eta obra horiek egiten diren bitartean ordezeko toki bat presta dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko urtarrilaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñeko San José Zentroko igerileku terapeutikoko obrei berehala ekin diezaien eta obra horiek egiten diren bitartean ordezeko toki bat presta dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala has ditzan obrak, Iruñeko San José Zentroko igerileku terapeutikoa konpontzeko eta funtzionatzen jartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ordezeko espazio bat presta dezan, obrak egiten diren bitartean terapia horiek egin ahal izateko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentua premiatzen du finantzaketa-hitzarmenak sina ditzan toki entitateekin, baldin eta interesa agertzen badute eta igerileku publiko aire-girotua badaukate, instalazio horiek ezgaitasuna duten pertsonen erabilerarako egokitzeko, bai eta ezgaitasunaren tratamenduan espezializatutako monitoreek emandako programa terapeutikoak finantzatzeko ere”.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, herri ekimeneko euskaltegien lana aintzatesten da.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko urtarrilaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Horren bidez, herri ekimeneko euskaltegien lana aintzatesten da”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako herri ekimeneko euskaltegien lana aintzatestea, haien lanaren bidez milaka herritar euskaldundu direlako azken 40 urteetan zehar.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du “Euskaltegi eta Gau Eskolei” dagokien partida ahalik eta azkarren esle

dezan eta, maila berean, neurriak har ditzan 2014an gerta ez dadin aurten gertatu dena.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Helduen Euskalduntze Alfabetatzeari dagokion plangintza bat era dezan, adierazleak zehaztuz, eta noiz eta nork zer eginen duen argi azalduz.

4. Nafarroako Gobernua premiatzen da euskaltegiekin finantziazio itun sistema bat ados dezan, urteko diru-laguntzen gorabeheratik ihesi, itunpeko hezkuntzaren finantziazio sistemaren pareko zerbait eraikiz”.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**1/2013 Foru Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa. Horren bidez, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2014. urtera luzatzen da eta beren montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dira.**

*OSOKO BILKURAK BALIOZKOTUA*

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko urtarrilaren 9an egindako Osoko Bilkuran, baliozkotu zuen 1/2013 Foru Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2014. urtera luzatzen baita eta beren montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen baitira. Foru lege dekretu hori 2013ko abenduaren 30eko 250. Nafarroako Aldizkari Ofi-

zialean eta 2014ko urtarrilaren 8ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera